

Bizkaiko Foru Aldundiaren 65/2018 FORU DEKRETUA, maiatzaren 22(e)koa. Honen bidez arautzen dira, batetik, europar funts batzuen tributu-tratamenduaren alderdi batzuk, eta, bestetik, berrikuntza, jarduera ekonomikoaren finantzaketa zein kapitalizazio produktiboa sustatzeko tributuen arloko neurrien alderdi batzuk. (1)

2018ko martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauaren bidez, batetik, tributuen ondorioetarako karakterizatzen dira Europako zenbait epe luzerako inbertsio-funts, eta, bestetik, aldaketak egiten dira zenbait zergaren foru-arauetan zein Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan. Hauek dira aldatzen diren foru-arauak: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, Ondarearen gaineko Zergarena, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarena, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergarena eta Kooperatiben Zerga Araubidearena. Bada, foru-arau horren I. tituluan, batetik, berrikuntza sustatzeko, jarduera ekonomikoa finantzatzeko eta kapitalizazio produktiborako diren funts europar jakin batzuen tributu-tratamendua ezartzen da, eta, bestetik, neurri berritzaileak inplementatzen dira sektore pribatuak ere parte har dezan funts horiekin Europa 2020 estrategiaren esparruan lortu nahi diren helburuak lortzeko orduan.

Estrategia horrek ezartzen du Europa 2020ren gunea hiru lehentasun izan behar direla, elkar indartzen dutenak eta Europako merkatu-ekonomia sozialak XXI. menderako izango duen irudia eskaintzen dutenak. Hona hemen lehentasunok:

- Hazkunde adimentsua: ezagutzan eta berrikuntzan oinarritutako ekonomia garatzea, eta horrek esan nahi du ezagutza eta berrikuntza gure etorkizuneko hazkundearen bultzatzaile gisa finkatu behar direla. Baina arrakasta izateko, horrekin batera, espiritu ekintzailea eta finantzaketa lortu eta arreta berezia jarri behar zaie erabiltzaileen beharriari eta merkatuaren aukerei.
- Hazkunde jasangarria: sustatu behar den ekonomiak eraginkortasun handiagoz baliatu behar ditu baliabideak, berdeagoa eta lehiakorragoa izan behar du, Europak prozesu eta teknologia berriak garatzeko lehian duen lidergoan baliatu behar du, sare adimentsuen garapena bizkortu behar du EBn eta gure enpresen eta gure ETEen lehiarako abantailak indartu behar ditu, lagungarri izan behar du ekonomiaren, gizartearen eta lurraldearen kohesiorako, eta, gainera, baliabideen erabilera eraginkorrari balio ematen lagundu behar die kontsumitzaileei.
- Hazkunde integratzailea: enplegu maila handia duen ekonomia bat sustatu behar da, kualifikazioetan inbertituz, txirotasunaren aurka borrokatuz eta lan-merkatuak zein prestakuntzako eta gizarte-babeseko sistemak modernizatuz, aldaketari aurre hartzen eta hura kudeatzen laguntzeko pertsonari, gizarte kohesionatua eraikitzen laguntzeko, non aukeratarako sarbidea eta aukera-berdintasuna bermatuko diren, eta, hala, indartu egingo da ekonomiaren, gizartearen eta lurraldearen kohesioa.

Aldi berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren lehentasunetako bat da, Bizkaiko Batzar Nagusien egungo agintaldian, jarduera ekonomikoaren garapena bermatzea zein lortzea aberastasuna eta enplegua sortzen direla eta lurraldea era adimentsu, inklusibo eta jasangarrian garatzen dela. Beraz, bere egiten ditu Europa 2020 estrategiaren helburu nagusiak, Bizkaia Goazen 2030 proiektuan islatzen denez.

(1) *Testu hau dokumentazio-tresna bat baino ez da, ez du eragin juridikorik. Bizkaiko Foru Aldundiak ez du testuaren erantzukizunik bere gain hartzen. Egin beharreko ekintzen benetako bertsioak, beren atarikoak barne, dagokion aldizkari ofizialean argitaratutakoak dira.*



Argi dago epe luzerako estrategia biak helburu berberak gidatzen dituztela eta printzipio gidari berberak ikus daitezkeela. Hortaz, foru-arau horren I. tituluan jasotzen den arauketaren bidez emaitzarik onena lor daiteke; izan ere, uztartu egiten ditu Europako Parlamentuak eta Kontseiluak ezarritako finantza-tresnak, batetik, eta, bestetik, Bizkaiko Foru Aldundiak jarduera ekonomikoaren finantzaketaren garapenarekin, enpresa-ehunaren kapitalizazio produktiboarekin eta ikerketa eta garapeneko zein berrikuntza teknologikoko jarduerak indartzearekin duen konpromisoa.

Argi dago aipatu ditugun Europako finantza-tresnak nahiz Bizkaiko Foru Aldundiaren politika ekonomikoa bera sortu eta abiarazteak dakarrela tratamendu fiskal bat ezarri behar dela, errealitate berri hori ondoen egokitzen zaiona, eta, horretarako, eguneratzeak egin behar dira Ekonomia Itunak ezarritakoaren arabera lurralde historikoek arautzeko autonomia duten zergapetze-motetan.

Aldi berean, beste lehentasun bat ere agertzen zaigu: herritarrek parte har dezatela helburuon finantzaketan; izan ere, gizarteak bere aurrezkoa mobilizatu behar du ditugun helburu kolektibo nagusiak lortu ahal izateko, ongizate handiagoa dakar-eta horrek. Herritarren parte-hartzea sustatuko bada berrikuntza bultzatzeko Europako funtsei, jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsei eta kapitalizazio produktiboa bultzatzeko Europako funtsei lotuta jarduera ekonomikoa garatzeko diren berrikuntza teknologikoko eta enpresa-kapitalizazioko proiektuen finantzaketan, foru-arau horrek zenbait zerga-pizgarri ezartzen ditu zergadunen zuzeneko tributazioari eragiten dioten zergapetze-mota nagusietan.

Foru-arau horren 4., 5. eta 6. artikuluek tributuen ondorioetarako karakterizatzen dira Europako zenbait epe luzerako inbertsio-funts, manu horietan eta sozietateen gaineko zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 80. artikuluan ezarritako helburuei erantzun eta manu horietan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak. Bestalde, 7. artikulua hau xedatzen du: «arestiko 4. 5. eta 6. artikuluetan xedatutako baldintzak betetzen dituzten eta titulu honen IV. kapituluaren xedatutako zerga neurriak aplikatu nahi dituzten Europako funtsek jakinarazpen bat aurkeztu beharko diote zerga administrazioari, eurak merkaturatu baino lehenago edo bestela, zerga neurri horiek aplikatu nahi dituzten lehen zergaldia hasi aurreko hiru hilabeteetan, arauz ezarritakoa betez».

Gainera, hau xedatzen du: «Zerga administrazioak titulu honen aurreko artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu eta berrikuntza bultzatzeko Europako funtsa edo jarduera ekonomikoaren finantzazioa bultzatzeko Europako funtsa edo kapitalizazio produktiboa bultzatzeko Europako funtsa dela onartuko du, dagokionaren arabera, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren Ebazpenaren bidez. Ebazpen hori argitaratu egingo da jendeak ezagut dezan».

Azkenik, manu horrek, era berean; hau arautzen du: «Arestiko idatz-zatiak aipatzen dituen Europako funtseko Foru Arau honen 4., 5. eta 6. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzeari buruz zerga administrazioari jakinarazteko aldizkako betebeharrak bete beharko ditu arauz ezarritako baldintza eta epeetan».

Ondoren, 2018ko martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauaren 8.etik 10.era arteko artikuluek aldatu egiten dituzte pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, ondarearen gaineko zerga eta oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga arautzen dituzten foru-arauak, berrikuntza-beharrizanei erantzuteko eta enpresa-jarduera finantzatzeko lankidetzak publiko-pribatua sustatzen duten pizgarri fiskalak sartzeko, eta, azkenik, 11. artikuluan, hau xedatzen du: «Kapitulu honetan jasotako zerga neurriak aplikatzeko zergadunek haien frogagiriak aurkeztu beharko dituzte. Foru Arau honen 4. 5. eta 6. artikuluek aipatzen dituzten funtsetako eta berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak eskuratzeko erabili behar diren banku-erakundeetako gordailuetako partaidetzei buruz jakinarazteko betebeharren edukia erregelamenduz garatuko da, eta hura betetzeko eskatu ahalko da, kasuan kasu, zergadunei Foru Arau honetan jasotako zerga neurriak aplikatzeko eskubidea ematen duten gordailuak egiten diren finantza-erakundeen bidez».



Beraz, berrikuntza bultzatzeko Europako funtsen, jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsen eta kapitalizazio produktiboa bultzatzeko Europako funtsen izaera aitortzeko prozedura eta baldintzak arautzeko manu horietan ezarritako erregelamenduzko gaikuntzak erabili behar ditu Bizkaiko Foru Aldundiak, eta goian aipatutako informazio-betebeharrak xedatu behar ditu, hori guztia baita foru-dekretu honen helburua.

Horrez gainera, funts horietarako ezarritako tratamendu fiskala aplikatzeko betekizunak betetzeari buruzko alderdi jakin batzuk garatu behar dira, bai eta funts horien bidezko inbertsio-prozesuan, inbertsioa zuzenean egiten denean zein kreditu-erakundeen bidez egiten denean, esku hartzen dutenetako bakoitzerako ezarritako betebeharrak betetzen ez diren kasuei buruzko alderdi jakin batzuk ere.

Adierazi behar da foru-dekretu honen izapidetzea lege eta dekretu hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa; Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2/2017 Foru Dekretua, 2017ko urtarrilaren 17koa, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duena.

Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2018ko maiatzaren 22(e)ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsen, jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsen eta kapitalizazio produktiboa bultzatzeko Europako funtsen izaera aitortzeko prozedura.

1. 2018ko martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauaren 7. artikuluko 1. zenbakian xedatutakoarekin bat, foru-arauaren 4. eta 5. 6. artikuluetan xedatutako baldintzak betetzen dituzten eta I. tituluko IV. kapituluan xedatutako zerga neurriak aplikatu nahi dituzten Europako funtsek jakinarazpen bat aurkeztu beharko diote zerga administrazioari; aurkezpen hori Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 45. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera egin beharko da (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori), artikulua honetan ezarritako berezitasunekin.
2. Eskabideak honako datuok izan beharko ditu:
 - a) Jakinarazpena aurkezten duen epe luzerako inbertsio-funtsaren identifikazioa.
 - b) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduak (Europako epe luzerako inbertsio-funtsei buruzkoa) 5. artikuluko 1. zenbakian xedatutakoarekin bat Europako epe luzerako inbertsio-funtsen agintari eskudunari aurkeztutako dokumentazioa.
 - c) Agintari eskudunak ematea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduak (Europako epe luzerako inbertsio-funtsei buruzkoa) 6. artikuluan jasotako baimena.
 - d) Europako epe luzerako inbertsio-funtsen kudeatzailearen erantzukizunpeko adierazpen bat, sozietateen gaineko zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 80. artikulua 2. zenbakian ezarritako baldintzan betetzen direla adierazteko.



- e) Liburuxka eta, hala badagokio, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduak (Europako epe luzerako inbertsio-funtsei buruzkoa) 23. artikuluan aipatutako funtsezko datuen dokumentua, bai eta 2018ko martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauaren 4., 5. edo 6. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa ere.
3. Jakinarazpena Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordeztari aurkeztuko zaio.
 4. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da berrikuntza bultzatzeko Europako funtsaren edo jarduera ekonomikoaren finantzazioa bultzatzeko Europako funtsaren edo kapitalizazio produktiboa bultzatzeko Europako funtsaren izaeraren aitortpena, 2018ko martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera eginga.

Gainera, berrikuntza bultzatzeko Europako funtsaren edo jarduera ekonomikoaren finantzazioa bultzatzeko Europako funtsaren edo kapitalizazio produktiboa bultzatzeko Europako funtsaren izaera aitortu zaien Europako epe luzerako inbertsio-funtzen zerrenda eguneratu bat mantenduko du Ogasun eta Finantza Sailak, Bizkaiko Foru Aldundiaren Interneteko orrian.

2. artikulua Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsen, jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsen eta kapitalizazio produktiboa bultzatzeko Europako funtsen informazio-betebeharrak.

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetzen dituen Araudiak (araudi hori Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) 50.2 eta 53. artikuluetan ezarritako informazio-betebeharrak bete beharko dituzte 2018ko martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauaren 4., 5. edo 6. artikuluetan adierazitako funtsek.
2. Aurreko zenbakian xedatutakoaren arabera eman beharreko informazioaz gainera, berrikuntza bultzatzeko Europako funtsaren edo jarduera ekonomikoaren finantzazioa bultzatzeko Europako funtsaren edo kapitalizazio produktiboa bultzatzeko Europako funtsaren izaera aitortu zaien funtsek, ekitaldi bakoitzean eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezarritako eran, jakinarazi beharko dute, hurrenez hurren, 2018ko martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauaren 4., 5. edo 6. artikuluetan ezarritako informazioa, kasu bakoitzean dagokionaren arabera; horrez gainera, erreferentzia egin beharko diote ondorio fiskaletarako funts bakoitza aitortzen duen Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenari.

3. artikulua Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsen, jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsen eta kapitalizazio produktiboa bultzatzeko Europako funtsen partaideen informazio-betebeharrak.

1. Ondarearen gaineko zergari buruzko 2013ko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauaren 5. artikuluen hamabi edo hamahirugarren zenbakietan zerga-oinarrirako ezarritako salbuespen edo murriztapenak izan nahi dituzten zergadunek zerga-oinarriaren salbuespena edo murriztapena izateko zenbaki horietan ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute zergaren autolikidazioarekin batera.
2. Oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari buruzko 2015eko martxoaren 25eko 4/2015 Foru Arauaren 12. artikuluko 7. zenbakian zerga-oinarrirako ezarritako salbuespen edo murriztapenak izan nahi dituzten zergadunek zerga-oinarriaren salbuespena edo murriztapena izateko zenbaki horretan ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute zergaren autolikidazio edo aitortpenarekin batera.



4. artikulua. Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsei, jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsei eta kapitalizazio produktiboa bultzatzeko Europako funtsei egindako ekarpenak erabiltzeko epea.

1. Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsaren, jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsaren edo kapitalizazio produktiboa bultzatzeko Europako funtsaren izaera aitortu zaien Europako funtsek aukera izango dute martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauaren 4, 5 eta 6. artikuluen (bakoitzari dagokionaren arabera) azken paragrafoan ezarritako epea luzatzeko eskatzeko, baldin eta gerora sortutako inguruabarrak direla-eta, betiere behar bezala arrazoituta badaude, egindako ekarpen horiek ezin badira erabat erabili foru arau horren 4, 5 edo 6. artikuluetan, hurrenez hurren, ezarritako xedeetarako aipatutako epe horien barruan.
2. Epea luzatzeko eskabidea Bizkaiko Foru Aldundiaren Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 45. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera egin beharko da (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori), artikulua honetan ezarritako berezitasunekin.
3. Aurreko zenbakian aipatzen den eskabidean datu hauek zehaztu behar dira:
 - a) Aurrez ikusitakoaren arabera, partaideek ordaindutako ekarpenetatik, aurreko 1. zenbakian aipatutako epe arrunten barruan dagokien xederako erabili ezin izango den zenbatekoa.
 - b) Epe horiek betetzea ezinezko egiten duten gerora sortutako arrazoen justifikazioa.
 - c) Ordaindutako ekarpenak funtsaren xedeetarako erabiltzeko beharko den denboraren kalkulu arrazoitua, luzatzeko eskabidea justifikatzen duten gerora sortutako inguruabarrak kontuan hartuta.
4. Eskabidea Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordeztan aurkeztu beharko da, hilabeteko epean, luzatzeko eskabidea eragin duten gerora sortutako inguruabarren berri izaten denetik aurrera; eta, betiere, aurreko 1. zenbakian ezarritako epe arrunta amaitu baino hiru hilabete lehenago, gutxienez.
5. Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak ebatziko du eskabidea, hiru hilabeteko epean, eta ezetsizat joko da epe horretan ebazpenik jakinarazi ez bada.

5. artikulua. Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetan partaidetzak eskuratzeko, kreditu-entitateetan gordailututako kopuruak.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 90.bis artikulua 3. zenbakian xedatutakoari dagokionez, erregela hauek aplikatuko dira:

- a) Zergadunek gordailututako zenbatekoei dagokienez, kreditu-erakundeek kopuru horiek berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetan partaidetzak eskuratzeko erabiltzeko duten betebeharra ez da bete gabetzat joko kreditu-erakundeak urte beteko epean eskuratzen baditu partaidetzat, zergadunei kopuru horiek gordailutu dituzten egunetik zenbatuta.
- b) Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsek ez badituzte betetzen martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauaren 4. artikuluan ezarritako baldintzak, ez-betetze horrek ez badie eragiten egindako ekarpen guztiei, lehenengo eta behin, funts horretan zuzeneko partaidetza duten pertsoneri eragiten diela ulertuko da. Ez-betetzeak eragiten dion kopurua zuzeneko partaidetza horiei dagozkien ordainketak gainditzen baditu, eta kasu horretan baino ez, ez-betetze horrek kreditu-erakundeetan, aipatutako funtsetan partaidetzak eskuratzeko kontuetan, diru-kopuruak gordailutu dituzten zergadunei eragiten diela ulertuko da.

Ez-betetze horretan, partaide bakoitzak edo, hala badagokio, gordailugile bakoitzak erantzukizun proportzionala dulea ulertuko da, aurreko paragrafoan ezarritako erregela kontuan hartuta.



6. artikulua Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetzen dituen Araudia aldatzea; Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori.

Aldaketak egiten dira Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetzen dituen Araudian (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori); hona zer aldaketa egiten zaizkion:

Bat. Berridatzi egiten da 50. artikuluko 2. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Inbertsio kolektiboko erakundeen sozietate kudeatzaileek, Europako arrisku-kapitaleko funtsen, Europako gizarte-ekintzailetzako funtsen edo Europako epe luzerako inbertsio-funtsen erakunde kudeatzaileek, Espainiako erakunde merkaturatzaileek eta zerbitzuak libre emateko araubidean diharduten erakunde kudeatzaileen ordezkariak honako datu hauek eman behar dizkiote Zerga Administrazioari, urteko aitortpena aurkeztuta: abenduaren 31n inbertsio kolektiboko erakundeen kapitaleko edo ondare-funtseko akzio edo partaidetzen edo Europako arrisku-kapitaleko funtsen, Europako gizarte-ekintzailetzako funtsen edo Europako epe luzerako inbertsio-funtsen titular izan diren pertsona eta erakundeen izen-deiturak edo sozietate izenak edo izen osoak eta identifikazio fiskaleko zenbakiak.

Horiez gainera, titular bakoitzak duen akzioen eta partaidetzen kopurua eta motak zehaztu behar dira eta, behar izanez gero, zein taldeetakoak diren ere bai; abenduaren 31n izan duten likidazio-balioa ere adierazi behar da. Espainiako inbertsio kolektiboko erakundeen akzioen edo partaidetzak mugaz gaindi merkaturatzen badira edo Europako arrisku-kapitaleko funtsak, Europako gizarte-ekintzailetzako funtsak edo Europako epe luzerako inbertsio-funtsak merkaturatzen badira, ez-egoiliar diren beste batzuen kontura akzio-partaidetza titular ageri den atzerriko erakunde merkaturatzaileak eman behar du informazioa, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onetsi zuen 2014ko apirilaren 15eko 48/2014 Foru Dekretuko xedapen gehigarri bakarrean ezarritakoarekin bat etorritik. Hala ere, sozietate kudeatzaileak edo inbertsio-sozietateak erantzukizuna eduki dezake Zerga Administrazioarekin, xedapen gehigarri bakar horretan xedatutakoaren arabera.

Inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak edo partaidetzak bigarren mailako merkatu batean edo baloreak negoziatzeko sistema antolatu batean negoziatzeko onartuta badaude, akzioak edo partaidetzak gordailututa dituen erakundeari dagokio aurreko paragrafoan aipatutako informazio-betebeharra.»

Bi. Berridatzi egiten da 53. artikuluko 1. zenbakiko a) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«a) Fede-emaila publikoek, talde inbertsioko erakundeen sozietate kudeatzaileek, Europako arrisku-kapitaleko funtsen, Europako gizarte-ekintzailetzako funtsen edo Europako epe luzerako inbertsio-funtsen erakunde kudeatzaileek, inbertsio-funtsetako partaidetzak merkaturatzen dituzten erakundeek, krediturako finantza-erakunde eta -establezimenduek, baloreen sozietate eta agentziek, gainerako finantza-bitartekariak eta pertsona fisiko eta juridiko guztiak, Pertsona Fisikoen gaineko Zergari, Sozietateen gaineko Zergari eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko foru-arauetan eta arlo honetako xedapenak ezarri dituzten gainerako arau guztietan ezarritakoarekin bat etorritik.»

7. artikulua Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia aldatzea; Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori.

Berridatzi egiten da 2014ko apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 117. artikuluko 2. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Kreditu-erakundeek datu hauek aurkeztu beharko dituzte hurrengo urteko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean:

a) Etxebizitza-kontuei buruzko informazio-adierazpena, datu hauek jasotzen dituen:

a') Etxebizitza-kontuaren titularren izen-abizenak eta IFZ.

b') Zergadun bakoitzak etxebizitza-kontuan duen titulartasun-portzentajea.

c') Etxebizitza-kontua ireki zen eguna.

d') Etxebizitza-kontuak ekitaldi bakoitzaren hasierako eta amaierako saldoa.

e') Berriaz onesten den inprimakian eskatzen diren gainerako datu guztiak.

b) Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsak eskuratzeko gordailuei buruzko informazio-adierazpena, datu hauek jasotzen dituen:

a') Gordailuaren titularren izen-abizenak eta IFZ.

b') Zergadun bakoitzak gordailuan duen titulartasun-portzentajea.



c') Gordailua ireki zen eguna.

d') Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko 2013ko abenduaren 3ko 13/2013 Foru Arauaren 90.bis artikuluko 3. zenbakian ezarritako mantentze-epaia amaitu aurretik zergadunek hartutako zenbatekoak.

e') Berariaz onesten den inprimakian eskatzen diren gainerako datu guztiak.

Kreditu-erakundeek, b) letran xedatutakoarekin bat eman behar duten informazioaz gainera, zerrenda bat aurkeztu behar dute, non jasoko diren, batetik, berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak, kreditu-erakundeak eskuratu eta kreditu-erakundeak gordailututako kopuruen helburu izan direnak, eta, bestetik, goiko d') letran adierazitako mantentze-epaia amaitu aurretik eskualdatu edo itzuli diren funtsetako partaidetzak. Kasu bietan, funtsei berrikuntza bultzatzeko Europako funtsaren izaera aitortzeko Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenei egin behar zaie erreferentzia.»

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Arauak emateko almena.

Ahalmena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2018ko maiatzaren 22(e)(a)n

Ahaldun Nagusia

UNAI REMENTERIA MAIZ